

KOSTUEN EGITURA

Kostu egiturari dagokionez, hasierako gastua webguneak sortzen dituen enpresa batekin kontaktuan jartzea izango da, gure webgunea diseinatzeko eta sortzeko erantzukizuna edukiko dutena. Laguntza honekin webgunea erakargarriagoa izango da eta jendearen interesa pizten saiatuko gara, horrela webgunean sartuko dira eta ezagunagoa egingo da. Hasierako kostua, hau da, webgunea sortzearena, 1500 eurokoa izango da. Enpresa honek diseinu profesionala, marketing, adituak eta online erosketak baliabidetzen ditu. Webgunea sortu ondoren, zabalkunde prozesuari ekingo diogu, sare sozialen bidez publizitatea egingo dugu, horrela pertsona gehiagoren eskuetara iritsiko da. Mantenimentuari dagokionez, kontratatuta izango ditugun pertsoneri soldata bat ordaindu beharko zaie.

Beraz, PAYLONen gastuak webgunearen sorreran, zabalkuntzan eta mantenimentuan mugatzen dira. Webguneak sortzeak 1500€ko gastua izango du, sare sozialetan zabaltzeak 300€ko gastua astero eta mantenimenduak 5000€koa hilabetero. Horrenbestez, 6200€ gastatuko ditugu hilabetero gutxi gora behera, eta etekinak hilabetero aldatuko dira. Etekinak saldutako lanen arabera eta sortutako publizitatearen arabera izango da. Gero eta bisita gehiago webgunean, orduan eta etekin handiagoak enpresarentzat..